

«Jainkoaren umeen» misterioa

«Jainkoaren neskatilla bat, mutil bati, Jainkoaren altzora eroateko, maitasuna egitera eltzen bada, onetan ez dago ezer gaiztoa danik».

Amar urteko ekintzan, milloi bi bide-oneratu mundu guztian.

Olakoakaz alkartu nai dauanak, bere ekintzak, sendia, adiskideak eta abar itxi bear dauz, eta «koloni-taldeetan» izena emon, «maitasunaren mezulari bat» izateko.

Ugo CLEMENTI'k

GURE gogozko arrebak, diñoe-
nez, Jesus'gaitik lizun-eraz-
ten dira. Dollorkeri aundiagorik!
Egia da, guk siñisten dogula sexua
Jainkoak egiña dala, guztiok bera-
ren atsegiña txastatu daigun, eta
ez dala pekatu. Jainkoa maitasuna
dala, diñoe Liburu Santuak. Eta
errela, anai bati agertu barik
«maite zaitut» esatea, ez litzateke
misteriazlea. «Jainkoaren neskatilla
bat», mutil gazte bati, Jainkoaren
altzora eroateko, maitasuna
egitera eltzen bada, onetan ez
dago ezer gaiztoa danik. Gu gara
«Jainkoaren umeak», mundu za-
haleko famili bat gara, Jesus'en bi-
arrez, mundu guztia Jainkoaren
maitasunera eroatea nai doguna ta
erretan alegintzen gareanak. Su-
bituz dagoanari, bear dauanari
Jainko-maitasuna eroateko, gertu

gagoz ortarako buru-ukapenik
aundienak egin bear izanda be.
Ain zuzen be, Jainko-maitasune-
rako, edozein zerbitzurako gertu
gagozalako, lortu doguz atze ta
ondoren ain zaratatsuak, eta egin
ditugu ainbat arerio. Amar urteko
ekintzan, milloi bi bide-oneratzea
lortu dogu mundu guztian».

Onexek dira Rikardo Douthit,
Europa eguerdi-alde ta Afrika'ra-
ko «Jainkoaren Umeen» lenengo
ministru danaren itzak. Madrid'en
bizi da au, eta «Jainkoaren
Umeen» izenez ezagutzen dan erli-
jioso-mogimentu zabal aundi ba-
ten zuzentzaille nagusitza egiten
dau; igiera edo mogimentu onek,
eztabaida gordiñak jagi-azten
dauz bere ekintzaz, bere diru-la-
guntza indarrez eta bere argiak ez
diran jokabideakaz.

Rikardo Douthit amerikarra da, 27 urte daukaz, Florida'n jaioa, ezkondua ta seme-alaba bi ditu.

«Jainkoaren Umeen» gaia asko erabilia izan da egunkari ta aldizkarietan; 1970'garrenaren asieran agertu zan mogimentu au, eta arrezkero, Europa guztian be ondo ezaguna dogu.

Jaiotz-agiria

Ain zuzen be, 1970 izan zan Ameriketako Laterri Alkartuetan «Jainkoaren Umeen» albistea bala-bala edatu zana. jaiotz-agiria, beraz, laterri aretan aurkitu bear da, Kalifornia'ko estaduan 1967'tik aurrera uzkuertz erlejiño mugimendu lez zabaldu zanean. Moise Dabid Berg'en lana dogu; 57 urtekoa berau, iragarle nunbait eta alkarte edo kongregaziño baten buru; alkarte au lenengotan, urte areitan or-emen ugari agertu ziran protesta-talde bat besterik etzan, gero porrot egin ebana, Laterri Alkartuetan batez be. Gaur Berkeley'ko Ikasgu Nausian dauka bere lendakari-aulkia.

Laterri Alkartuetan, dakigunez, erlejiño gauzetan askatasun oso-oso daukie, Laterriko konstituziñoak berak emonda; lurralde zabal luze areik, ba, ur emokor dira edozein eragiñerako, baita erlejiño arloan be. Amerikar euren oitura, ekandu ta siñiskerak be ba-dabe ortarako erreztasuna.

Protestante, mormoi, kuakero, katoliku, judegu ta ortodoxo, guztiz 200 milloi jarraitzalle daukezan mogimentu audien ondoan, beste erlejiño-talde asko agertzen dira askotariko pentsakera ta ideietatik sortuak.

Baiña Laterri Alkartuetako fenomenu, zelanbait esan, iraunkor orrek indarketa berezi-berezi bat eskintzen dau 70'garren urteetan. Azken urteotan uzkuertz siñis-talde barri asko jagi dira, asieran bardin samarrak izanik be, gaur bakotxak bere berezitasuna aberastuta aurkitzen diranak: «loren semeetatik» edo hipisetatik, ots arein auts-azpitik erneak nunbait, eta arein osaba urreko amerikar «beat» belaunalditik jaioak. Mundua aldatu nai eben areik, gizonaren txarra gitarraz eta loraz urtu. Atzo gazte ziranak eta gaur gazte diranak, 60'garren urteko porrot-egite ondoren, lorak izten dabez, gitarrari ots gitxiago atera ta aspaldidaniko erlejiñoetan ezkututzen dira: Buda, Jesus, Jainkoa, dira euron guraso ta maixuak.

Laterri Alkartuetan jaioten dira, eta mundu guztira zabaltzen dira kemen bereziz. Jeans'ak, pop musika, «underground» zinema, Amerika'ren entzute aundia ta bere ingles izkuntza dira, barrikeria edo moda sartu daroen tramankulu ta tresnak. Eta moda baten antzera, sekta barriok Euro-

pa'n sartu ta maillaka jente esko-
latzen dabez.

Garbiketa orokorraren moda

«Jainkoaren Umeak» 1970'ren
lenengoetarako Europa'ra eltzen
dira. Lenengotan, Bromley'n jar-
ten dabe euren lanleku nausia,
Kent'en, Londres'etik ez urrin be.

Euren asmoak oneik dira: go-
gorkeririk eza erabat, izaki guz-
tienganako maitasuna, kutsadura,
droga, kontsumoko mitoen aurka-
ko burruka, eta batez be «garbike-
ta orokorrerako» deia.

Jesus'en izenean ots-egiten dabe
maitasuna, talde berezietan alkar-
tzen dira, «komuna» deituetan
noski, eta itxuraz gazte on eta ede-
rak dira, on-gilleak, biotz-zaba-
lak, beti gertu baztertuai laguntze-
ko, gurasoakaz, sendiagaz naiz gi-
zar-teagaz zerbait daben guztiai ar-
gua ta laguntasuna emoteko inoiz
be aitzakirik ez dabenak.

«Berezkoa» lakoxe moral-naste
bat ontzat artu oi dabe, gizona
baizen zaarra ta antxiñakoa, erle-
jiño-filosofiz eta modako naste-
pikor batzukaz oretua; eta jokabi-
de au egokia dozu jarrailleak ira-
bartzeko.

Naste ta ongarrri orreikaz: mun-
dian irabaztea. Gaur-egun 72 late-
ritan daukaguz, erakunde ba-
rtuan lan dagien 8.000 pertsona
burne dituelarik. Gero euren ja-
rraitzailleak, gogaide ta atxikiak,

eusle ta adiskideak; guztiz, Rikar-
do Douthit'ek diñoskunez, millo-
bira eltzen jakuz.


Euren siñiskai edo kredoa libe-
rutxuetan irarrita dago; illean
oneitariko 6 milloi kopi egiten da-
bez.

Alemanik Elkartutako aldizkari
«Stern» deritxonak, enkuesta bat
egin dau mogimendu onetzaz eta
bertan ainbat eta ainbat albiste da-
barri damoskuz, oso jakingarriak.

Jakiña danetik atera geinkenez,
erakundeak txuntxur bat osotzen
dau, eta gain-gainean «aita» ido-
rotan da, ots, Mose Dabid Berg.
Ondoren datoz «arduradunak»,
edo «gotzaiñak», «zaarrak», «ar-
tzaiñak». Azken oneik dira «kolo-
nien» erantzun-bearra dabenak;
«koloniok», ostera, 6 edo 10 per-
sonak osotzen dabez, egunez lan
egiñik, euren bizitza guztia «Jain-
koaren Umeen» arduraz bizi dira-
nak.

800 bat diran «kolonien» on-
doan, «lurpeak» dagoz; onela de-
ritxenak, erlejiñoari euren aldi
guztia eskintzen ez dautsoenak
dira.

«Jainkoaren Umeak» 300 bat
dira Italia'n, 500 bat Alemanik Al-
kartuan. Jarrailleak eta kidekoak
kalean egin oi dabez, kafe- ta jate-
txeetan, agiriko lekuetan, diskote-
ka ta orrelakoetan. Antzerkiak be
eratzen dabez plaretan; musika
egin bear da, Biblia irakurri ta



Mosé David, erlijio berriaren «igarlea».

Jainkoaren maitasuna aldarrika-
za. Emakaz alkatu nai dauanak,
bere ekintzak, sendia, adiskideak
eta abar itxi bear dauz, eta «kolo-
nialdeetan» izena emon, «maita-
saren menulari bat» izateko.

Certe eskolatuak famili one-
ak dira geien bat. Ez bat ez bi,
eta iten dabe, bankuetan aurrez-
te euki daben dirua atera ta, eze-
ta itzaki-maitzaki barik famili-
ak or duaz, etxeokoi «gero arte»
edo «agurririk» be esan bage. Ge-
nari tarjeta bat artzen dabe sen-
diaz, edo urrutizkin-dei bat,
«Jainkoaren Umeen» ondoan zo-
nari aurkitzen dala, gurasoai
agurtiaz.

Mose Dabid'en billa, Laterri Al- kartuetan

Ormen sortu dira kezak era-
nide orren aurka. Mose Dabid
arenen billa dabilz Laterri Ba-
rtuan. Alde batetik fiskal-iruzu-
ngatik, eta bestetik lizun-jokoa-
ngatik, 14 urteko neskatza batek
dauzotan Mose Dabid eta beste
«bata» batzuk seksu-artu-emone-
an beartu ehela-ta. Amerikar
«bata» be Mose'ren atzetik dabil,
«bata» liburutetan maitakeri liza-
ngatik merke saltzen dau-
zaten.

«bata» ezatetsuak eginak dira li-
buruak orreik. «Stern»-ek libu-
ruak orreitilik arturiko zatiak
agurtiaz ditu Mose Dabid'ek

berberak izenpeturik; «Jainkoa-
ren maitasunezko mirabeak» ai-
tatzen ditu bertan, maitakeri
utsezko ideiak pornografizko iru-
diz apainduta jorratuaz.

Baiña zarata ikaragarria atera
eban batez be 21 urteko neska ba-
tek —Sabine Nussbaum'ek— Rimi-
ni'tik bere gurasoai bialdu eutsen
kartak. «Emen diñotzuedanak
—idazten dau— ez dau zer-ikusirik
emagalduen bizikereaz. Ez naz oe-
ratzen edozeñegaz, Jainkoaren bi-
lla dabilzanakaz bakar-bakarrik.
Ba ete ederragorik, emakume ba-
tentzat, neure bizia ta neure gor-
putza Jaunari eskintzea baiño?»

Andik aurrera bete-betean jauzi
zan emagaltze antolatueren geriza,
«Jainkoaren Umeen» gainera. Ita-
lia'n enkuestak diño neskatzak
«eskolatuak» dirala Poggiosco
(Florenzia)'n, liburutkaen bitar-
tez, eta geitxoago be bai, jakitza,
bakotzak 30.000 eta 40.000 lira
irabazteko egunero.

Gero, azken illabete oneitan,
Mose David ikusi dabe Tenerife'n,
«Jainkoaren Neskatzen» talde ba-
tekin; igarlea oneikaz ebillen sarti
modako gau-batzar-lekuetan.
Egunerokoak diñoanez, aren gau-
ibillerak argitu nairik, espaihar
poliziaz dei egin dautuonean,
Mose Dabid'ek gorde egin dau
bere burua.

Matxar eta sutsu txar guztian
aurka, hitez be Italia'ko egunero-

koak erabillitako eztabaida ta istilluen aurka, Rikardo Douthit'ek bere aldetik ezezko biribilla emon dautse; ez dagola olako nasterik, ez lizunkerizko artu-emonik, joan eta ikusi dagiala siñisten ez dauanak; eurretatik geienak ezkonduak dira ta ezkontzari lotsa aundia dautsoenak, ezkongeak barriz inoren sentimentuak ez zauritzeko moduan jokatu bear dabe. Alan be, «Jainkoaren neskatx batek» —diño— Jainkoaganako maitasuna ulert-erazoteko gazte batekin maitasuna egiteraino eltzen bada, ortan ez dago ezer txarra danik. Guzur aundia da «Jainkoaren neskatxak» ori egitearren dirua artzen dauala esatea. Ori ba'dagi, ortarako xede zeatzari jarraiturik izango da»

Beste aldetiko soiñua

Taldeko «lenengo ministruren» itz oparo ta larrosazkoen kontra daukaguz erakunde ori laga daben «Jainkoaren Mutil» batzuen esanak.

Oneitariko batzuegandik batez be Alemania'n jasotako testigantzak beste arpegi edo kokomarro, txit bestelako bategaz agertzen jakuz «Jainkoaren Umeak»; emakumeak itsu-itsuan artu ta jarraitu bear dabez alderdiaren eritxi ta aginduak. Mose Dabid igarlearen irakatsiak eten barik irakurtea, Biblia buruz ikastea ta abar, zorrotz

be zorrotz eskatzen diranak dozuz. Orrez gain, kalera urten bear da eskean, norberarenak ukatu ta diru-mordo bat pillaturik; ori ez ba'dagizu, zigortua zara. Norbera ondasunak ukatzea «familiaren» alde izaten da.

Era askotara egin oi dira diru-batzeak; baita batu be txindi-metagalantak, naiz-ta gero jakin ez nora doazan diru orreik. Bizukapen latzean azitako «Jainkoaren Umeak» uste dabe diru guzti ori urko lagunari laguntzeko dala. lurreko gosetien zauriak eta gutxak zerbait arintzeko nurbait.

Inglaterra'n daukie «Jainkoaren Umeak» iru urte dirala Laterr Alkartuetatik jaurtiak izan ziranes gero, euren gudallegi orokorra Scotland Yard'ek kontaeziñ ala salakuntza artu datoaz, «Jainkoaren Umeen» erruz ostondutako beren semeak dirala-ta gusasa eginda. Orixegaink ikerketa batzuk egin dira. Bromley'ko John Hunt diputaduak aurkeztu dauen kasurako batez be.


Hunt'ek diño: «Lenengotan orozalakoan nengoan, baiña azkererainbat gurasoren salakuntzak ikusita, uste dot erakunde oso kiber-garria dala. Maitasuna aldarikatzen dabe, baiña anai-arpegi orerostean, ba-da zerbait iragarri okerra dana»

Bitartean inok ez daki Mose Dabid non dagoen eta aren «len-

«ministruak». Douthit'ek diño:
«Polizia gure atzetik dabil, baiña
ez dauku ezer aurkitu txarra da-
rik. Zergaitik ete doguz ainbeste
guzai? Asko dirana, ba-dakit, bai-»

ña ez dakit zer dala-ta. Jesukristo
lez da: Jakin daikegu zergaitik egi-
ten ehanagaz ete eukazan ainbeste
arerio?»

Aita ONAINDIA'k euskeratua.



Ez da beldurtzeko gauza

Ostatu batean neska bat artu dute. Egun batzuetako jan da lo egiteko
asmoakin sartu da neskatilla.

– Jakiñan gainean jartzen dizut, sekula santan ez dudala nere etxe on-
tan neska bat bakarrik artu lo egiteko –esaten dio ospederiko nagusiak
neskatxari.

– Lasaitu zaitez, noizik beinka lagun batekin etorriko naiz.

Ez egiñaren damua

Gizon gazte bat eta edadeko bat berriketan dagozte taberna baten in-
guruari: Bere gaia, ezkontza gorabera. Gizon gaztea ezkontzekotan dabil
eta edadekoak kontseju batzuk eman naitz edo, bere ezkontz bizitzako
reutrtasunak eskeintzen dizkio.

– Ezkondu eta lenengo urtetan andrearenganako nere maitasuna eta
nere amodioa izugarritzkoa zan. Pentsa ezazu nolakoa izango zan, bein
haiño geiagotan tentaturik egon nintzan puskaka puskaka jateko...

– Eta orain ez? –galdetzen dio gazteak.

– Orain damu naiz asmo aiek aurrera eramain ez izana.